



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
211.zkia . 2008ko ekaina

HONDARRIBIKO UDALA . EUSKARA BATZORDIA DOHAIN



Denboraldi berrirako prest



JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



Tel.: 943 11 02 01
San Pedro, 33 - 20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



Aliprox
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI

TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea · Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



Serapio Múgica, 5
IRUN
Tel.: 943 61 29 00

San Pedro, 12
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 20 76

Revellin, 3
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 56 45

Avda Navarra, 4
IRUN
Tel.: 943 62 37 03



HONDARRIBIKO ITSASKARI BAITA

P.º R. Iribarren, s/n - Apartado, 88 - Teléf. 943 642 788 - Fax 943 642 894
e-mail: cnhondarribi@terra.es
20280 HONDARRIBIA

Lan bisita egin dute Alkateak eta Arkeologoak harresiko lanetara

Aitor Kerejeta Hondarribiko Alkatea eta Miren Ayerbe udal arkeologoa Hegoaldeko eta Mendebaldeko Harresietan TEUSA enpresa egiten ari den garbitze eta sendotzeko lanak ikuskatzen egon berri dira.

Aitor Kerejeta Alkatearen hitzetan, "helburua gunen harresituaren berreskurapena eta indartzea da. TEUSA enpresa egiten ari da, gaian esperientzia handia duen enpresa da, eta pozik gaude egiten ari diren lanarekin. Bi harresi zati hauen goikaldea egokitzen ari dira. Hegoaldeko harresia, Santa Mariatik Erreginarene Baluartera doana da, eta Mendebaldekoa aldiz, Erreginarene Baluartetik San Nikolasera doana. Orain arte egin izan dugun bezala, lan guztiek jarraipen arkeologikoa izaten ari dira".

Lanen aurrekontua 310.000 eurokoa da, BEZ barne.



Obrako bisitaren irudi bat.

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

info@zifcomunicacion.com

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Jexux Mari Mendizabal

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Vanessa Hernández Caverio

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK UZTAILEAN

- 1- ALMAJANO Mendelu, 26943 640068
- 8- ALAMEDA Harresilanda,9943 645798
- 15- ERAUSKIN San Pedro, 22943 641018
- 22- MAYI MARTINEZ(Almirante alonso)943 642191
- 29- IRAOLA (San Pedro, 5)943 641027

TXANDAKO OKINDEGIAK UZTAILEAN

- 1- ARRATIBEL (Mendelu auzoa)943 641975
- 8- GARMENDIA (Portuan)943 641136
- 15- MARTINEZ (Kale Nagusian)943 641212
- 22- ARRATIBEL (Mendelu auzoa)943 641975
- 29- GARMENDIA (Portuan)943 641136

Erdi Aroko azokako argazkiak erakusgai Zuloaga Etxean

Ekainean zehar, Zuloaga Etxean Erdi Aroko azokari buruzko erakusketa bat ikusgai egon da. Bertan, ia azokan antolatutako argazki lehiaketan parte hartu zuten lanak ikusi ahal izan dituzte pasatako ehundaka pertsonak.

Aurtengo Erdi Aroko Azokako argazki lehiaketan parte hardu dutenen artean garaileak laster erabakiko dira. Datorren urteko ekainean berriz erakusgai egongo dira Zuloaga Etxean.



lazko lan guztiak egon dira erakusketan

Hilerriko kapera eta zerbitzuak egokitu berri dira



Hilerriaren sarreraren irudi berrituarr

Azken asteotan zenbait birgaitze lan egin dira udal hilerrian. Azken asteotan, hilerriko barneko hormak margotu dira, hutsik dauden hilobiak konpondu dira, erabiltzaileentzat dauden komunak egokitu eta kapera birgaitu egin da.

Zerbitzuetako zinegotzia den Juan Mari Altunak lan hauek "beharrezkotzat" jotzen ditu. "Hilerria ahalik eta egoera onenean mantendu behar da, gainontzeko dena bezala. Urtero egiten dira egokitze lanak, eta aurtengoz ez da salbuespena izan. Kanpoko horma osatu, ibilbidea egokitu, kapera... gauza asko daude egiteko".

Aurrekontu osoa 9.500 eurokoa izan da.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Jai Nagusietako argazki lehiaketako oinarriak jakinarazi dira

Udaleko Kultura Sailak 2008ko Jai Nagusietako Argazki Lehiaketa antolatu du, non edonork parte har dezakeen. Gaia librea izango da, beti ere Hondarribiko Udalerrian. Argazkiak, koloretan edo zuri-beltzean aurkeztu daitezke, eta partaide bakoitzak gehienez lau argazki aurkez ditzake saritu edota argitaratu gabeak. Neurria: 20 x 30 zmtro.

Lanaren atzekaldean izen bat idatziko da eta horrekin batera datozen kartazal itxiaren kanpoaldean, aurkeztutako lanaren edo lanen izenak. Kartazalaren barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, N.A.N.ren fotokopia eta telefonoa idatziko dira.

Lanak norberak eramanda edo postaz nahiz mezulari bitartez bidalita honako helbide honetara eraman ahal izango dira, 2008ko uztailaren 8a aurretik:

Hondarribiko Udala - Kultura Departamentua
Panpinot kalea, 12-14 / 2. solairua
20280 Hondarribia

Irabazlearentzat 500€ egongo dira, bigarrenarentzat 400 eta hirugarrenarentzat 300.



lazko jaietako argazki lehiaketan irabazi zuen lana ezkerrean dagoen hau da. Egilea Javier Salaberria da, eta izenburua "Cabezudo".

Hondartza kiroldegian zenbait inbertsio egin dira

Udalak Hondarribia Lantzenen bidez Hondartza kiroldegian aurtengorako 180.000 euroko aurrekontua dauka inbertsioak egin ahal izateko. Hortaz gain, Kirolzer enpresak, kiroldegia kudeatzeko ardura daukan enpresak, 18.000 euroko inbertsioak egin ditu.

Hondarribia Lantzenen gerentea den Ion Elizalderen hitzetan, "hobekuntza eta material erosketaren inbertsio guztiak Hondarribia Lantzenetik, Kirolzerretik eta Hondarribiko Udaleko Kirol departamentutik koordinatuak daude".

"Azken erosketen artean" dio Elizaldek, "gimnasiorako bi makina misto aurki daitezke, aukera asko eskaintzen dituen eta goi mailakoa kontsidera dezakeguna, baita spinning egiteko beste 10 txirrinda ere". Hortaz gain, Kirolzerrek ezin duetan igogailu bat, aire egokituaren intalakuntza eta porteriak ere erosi dira.

Xabier Tife Udaletxeko Kirol zinegotziaren ustez, "departamentu honentzat eta Hondarribia Lantzenentzat kiroldegiari ahalik eta zerbitzu egokienak eskeintzea da, erabiltzailea eroso eta gustora sentitu dadin, eta ordaintzen duen kuota gero instalakuntzetan islatua dela ikustea. 2008. Urtean egin beharreko inbertsioak asko dira, espero dezagun denak egiteko aukera izatea".



Itziar Angiozar Kiroldegiko gerentea, Ion Elizalde Hondarribia Lantzeneko gerentea eta Xabier Tife, Kirolletako zinegotzia

moda

a-dos

Calle Zuloaga, 14
20280 Hondarribia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 11 19 69

AXOLA

INMOBILIARIA AGENTZIA

Salmentak
erosketak eta
alokairuak

San Pedro, 1 - Hondarribia
Tel.: 943 11 03 38 - 669704686 - 619411542

Hondarribiko taldeak Gazteforum lehiaketan bigarren saria lortu du



Bigarren saria lortu duen taldearen irudi bat

Joan den ekainaren 7an Gipuzkoako gizarte heziketa programetako 150 gazte eta 30 hezitzaile arduradun inguru Donostian elkartu ziren Gazte Forum 2008 egitasmoa lehiaketa-ekitaldi saioan. Bertan, sei nezkaz osaturiko Hondarribiko taldeak, Gaztelekuko zein Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzuko kale hezitzaileen laguntzarekin, bigarren saria jaso zuen "558 segundutan" lanarengatik. Saria eta ekintza batean gastatzeko 300€tako txartela da.

Gazte Forum egitasmoa, Gipuzkoako Aldundiko Gizarte Politika Departamentuak finantzatuta eta HeziZerb elkartek

ak kudeatuta, bigarren urtez garatzen ari da. Proiektu hau Gipuzkoan gazte nerabeekin lan egiten duten gazteleku eta kale heziketa programen moduko gizarte heziketa baliabideei zuzenduta dago.

Gazte Forum egitasmoak, pertsona zein lagun taldearen inguruan hausnartzeko aukera eskaini nahi du: pertsonarteko harremanak, talde baloreak, lagun taldearen ahalmenak, talde presioa, arriskuak... Hezitzaileez lagundutako bizipeneko prozesu burutsu baten ostean, talde hausnarketa horrekin, ikus-entzunezko muntai bat sortzea da asmoa, honek, beste gazteentzat eta orokorrean biztanleriarentzat esportagarria den mezu bat bilduko duelarik.

Ekainaren 7ko ekitaldi saioan herri ezberdinetako 15 gazte talderen lanak aurkeztu ziren: Andoain, Azkoitia, Beasain, Deba, Donostia, Erreterria, Irun, Hondarribia, Urnieta, Legazpi, Ibarra, Tolosa, Urretxu eta Zumarraga. Bideoak ikusi ostean teknikari ezberdinez osaturiko epaimahai batek, gazteek zein hezitzaileek beraiek emandako bozekin aukeratu ziren hiru lan saridunak. Lehen saria Debako taldeak lortu zuen, Hondarribikoak bigarrena eta Erreterriak hirugarrena.



Higer Bidea, nº 6 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com

ARRETXE



ERRETERRIA
 Larzabal 14 • 943 34 01 82
DONOSTIA
 Zabaleta 54 • 943 28 65 72
HONDARRIBIA
 J. Alonso 7 • 943 64 27 77
 Mendelu 17 • 943 64 70 58

Harresiak garbitu eta sendotzeko lanak hasi dira

Denetara lau izan dira Hegoaldeko eta Mendebaldeko Harresiak garbitu eta sendotzeko obrak esleitzeko lehiaketara aurkeztu diren enpresak. Aurrekontua 310.000 eurokoa da, BEZ barne. TEUSA izan da aukeratutakoa, hain zuzen Erreginaren Baluarte proiektua burutu zuena.

Aitor Kerejeta Hondarribiko Alkatearen hitzetan, "helburua gune harresituaren berreskurapena eta indartzea da. Bi harresi zati hauen goikaldea egokitzea da egingo dena. Hegoaldeko harresia, Santa Mariatik Erreginaren Baluarte doana da, eta Mendebaldekoa aldiz, Erreginaren Baluartetik San Nikola-sera doana. Orain arte egin izan dugun bezala, lan guztiek jarraipen arkeologikoa izango dute".



Ekainaren erdian hasi ziren lanak

Sare konpontzaileei harrera egin zaie Udaletxean



Sare konpontzaileen kolektiboa omendua izan da

Aitor Kerejeta alkateak eta Udaleko zinegotzi gehienek, Hondarribiko eta Euskadiko Sare Konpontzaile, Neskati-la eta Arrain Paketatzaileei harrera ofiziala egin zieten Udaletxeko Areto Nagusian hilaren haseran. Emakume talde hauen lanbidea aintzat hartzeaz gain, 2007ko abenduaren 1ean sinaturiko Ondarroako Aldarrikapena irakurri zen, euskaraz eta gazteleraz.

Dokumentu honetan, gizartearen aurrean Baxurako Euskadiko Sare Konpontzaile eta Neskatiilen Elkartek eta Ondarroako Neskatiilen eta Paketatzaile Elkartek, beraien jarduera aintzat hartzea, lanbidea ere ikusia izatea, eta egoera soziorabiala hobetzea aldarrikatzen da.

Ekitaldian, Hondarribiko Kofradiako zuzendari eta sare konpontzaileez gain, Orio, Getaria, Ondarru, Lekeitio eta Bermeokoak izan ziren, baita Itsas Mendikoi, Euskal Autonomia Erkidegoko landa eta itsasertzeko eremuen prestakuntza, sustapen eta garen integraleko zentroko ordezkariak ere.



**BARR
ONDARRIBI**

AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

Martin Iturbe apaizak hiriko Urrezko Intsignia jasoko du

Don Martin Iturbe Hondarribiko apaizak hiriko Urrezko Intsignia jasoko du datorren irailean, Sare Konpontzaileen kolektiboarekin batera. Hala eman zuen jakitera pasa den igandean Iturberi egin zitzaion omenaldian Aitor Kerejeta alkateak.

Kerejetaren hitzetan, "beharrezkoa zen erabaki hau hartzea. 37 urte daramazki apaiz lanetan, lan handia egin du eta Udaletxetik ez dugu inolako dudarik izan erabaki hau hartzeko. Datorren irailaren 7an oso ekitaldi polita izango dela ziur gaude, Hondarribiko parrokoa eta sare konpontzaileak bilduko ditugu eta".

1974. urtean Udalak Urrezko Intsignia hau Alberto Lasa Badiolari eman zionetik, hainbat izan dira omenaldi hau jaso duten pertsona eta erakundeak, adibidez Jose Maria Olazabal, Martin Ugalde, Alfonso Oronoz, Miguel Bernedo, Jose Luis Gamarra, Conchi Portu, Juan San Martin, Enrique Albizu, Remigio Mendiburu, Don Jose Gogorza, Javier Busto, edota Gurutzearen Alabak eta Odol Emaileen Elkarteak.

DOA erakundeak Hondarribiko Udala ohorezko bazkide izendatu du

Denok Osasunaren Alde Gobernuz Kanpoko Erakundeak Hondarribiko Udala izendatu du Ohorezko Bazkide bezala. Hori dela eta, maiatzaren 30ean Donostiako Ernest Lluch Kultur Gunean egin zen ekitaldian izan zen Aitor Kerejeta alkatea saria jasotzeko Udalaren izenean. Udalarekin batera Monseñor Manuel Egiguren, Ariana Caballero, Irun-go Toki Alai ikastetxea eta Errenteriako Udalak jaso dute ezagupena.

Denok Osasunaren Alde erakundeak sei urteko esperientzia du, eta urte guzti hauetan Hondarribiko Udaletik 54.300 euro jaso ditu, Guatemala eta Bolivian daramatzan laguntza lanak burutzeko.

Udako ordutegi berria BAZ-en

Ekainaren 15etik hasi eta datorren irailaren 15a arte, Biztanlearen Arreta Zerbitzuak (BAZ) ordutegi berria izango du. Astelehenetik ostiralera irekiko da, goizeko 9.00etatik 13.30era. Arratsaldean itxita egongo da, baita larunbata goizetan ere.



JATETXEA
LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel. 943 64 27 38




ARGAZKIAK
ORDU BETEAN

Itsasargi 3
Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

Merezitako omenaldia jaso zuten Joseba Llorentek eta Unai Emeryk

Ekainaren 27an, Itsas Lur Elkarteak eta Hondarribia Futbol Elkarteak merezitako omenaldi bat eskaini zieten aurten azken urteotan, eta bereziki aurten, Hondarribiaren izena urrutira eraman duten bi herritarrei. Unai Emery, egun Valentziako entrenatzailea, eta Joseba Llorente, datorren urtean Villarreal taldearekin Txapeldunen Ligan arituko dena hain zuzen.

Oso omenaldi hunkigarria eskaini zieten bi elkarteek, afari goxo batekin eta nola ez, sari-banaketa batekin ere. Iñaki de Mujika kazetari ezaguna izan zen aurkezlea, eta bat baina gehiago hunkitu zuen bere hitzekin. Omendutakoen senideak eta lagunak bertan izan ziren, goraino bete zen Itsas Lur Elkartean.

Zorionik beroenak biei, batez ere Josebari, afaria baina ordu t'erdi lehenago Naia izeneko neska baten aita izan baitzen. Etorriko ez zela zirudien arren, afari erdian hantxe agertu zen bildutakoen txalo zaparradaren aurrean.



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEA

San Pedro, 6
Tel. eta Faxes: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Hondarribiko Ekintza Plana abian da

Agenda 21 ekintza planeko borradorea prestatuko duten mahai sektorialak hasi dira bere lehen urratsak ematen. Denetara hiru mahai diseinatu dira:

- 1) Garapen ekonomiko eta sozialeko Mahaia
- 2) Ingurugiro, Planeamentu Orokor eta Mugikortasuneko mahaia
- 3) Hiri Ingurugiroko Kalitateko Mahaia

Aipatutako mahaietan udaletxeko, Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak parte hartzen dute. Erakundeez gain, Garraio, Mankomunitate eta Garapen Agentzietako ordezkariak ere parte hartzen dute.

Mahai bakoitzak bi lan bilera egingo ditu Ekintza Planaren borradoreen bat idatzi ahal izateko. Ondoren "Hiritar Foroa" osatuko da, non aipatutako erakundeez gain, hiriko alderdi politiko, elkarte eta talde desberdinek parte hartuko duten, eta nola ez, norbanako hiritarrak ere.

Ion Elizalde Ingurugiro eta Agenda 21eko zinegotziaren hitzetan, "urte bukaerako Ekintza Plana idatzita egotea espero dugu. Asmo handikoa izango da, baina errealitatea ahaztu gabe. Horrekin batera, hasi berri den Hondarribiko Plan Orokorrekin batera ibili beharko du. Ekintza Planak era guztietako ekintzak kontutan hartuko ditu, hala nola hirigintza jasangarri baten aldekoak, baita familia eta lana uztartzeko ekimenak, ingurugiroa defendatzeko neurriak... Datozen 4-5 urtetan udal praktikak gidatuko dituen ezinbesteko tresna izango da".

"Orain artean egin dezakegun balorazioa oso ona da" dio Elizalde. "Jasotako ekarpenak oso positiboak izan dira mahai sektorial guztietatik".



Ion Elizalde Agenda 21eko arduraduna bilera batean

Jaizkibelgo estazio megalitikoaren garrantzia triptiko batean zehaztu da

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak eta Hondarribiko Udalak Jaizkibelgo Estazio Megalitikoari buruzko triptiko informatibo bat argitaratu dute. Hiru trikuharri eta piriniar harrespil-multzo bat biltzen du Estazioak, mendiaren ipar-ekialdean eta gailur-lerroaren itsas-aldeko isurialdean hain zuzen.

Denetara hiru mila ale argitaratu dira, Turismo Bulegoan, BAZen eta interes toki desberdinetan banatuko dira, bai Hondarribian baita Gipuzkoan zehar ere. Hortaz gain, Jaizkibelgo paradorea zegoen tokian panel informatibo bat kokatu da.

Aitor Kerejeta Hondarribiko Alkateak, "Jaizkibelen daukagun Monumentu Multzoa kategoriarekin izendatutako Kultur Ondasun honi merezi duen garrantzia ematea da bilatzen dena. Triptikoak, alde batetik Jaizkibel mendiaren airetik hartutako argazki bat dauka, Estazioa non dagoen zehazten delarik. Beste aldean, informazioa eta argazkiak gehitzen dira".

Lurrailan enpresak egin du proiektua, eta une berean lan bera burutu du Oiartzun, Igeldo eta Meagako Estazio Megalitikoetan.

Berebilentzat Jaizkibeleko bideetarako sarrera itxi egin da



Higerreko farotik mendirako bidearen irudi bat

Ekainaren 15etik irailaren 31 bitarte Landa Garapeneko departamentuak Jaizkibel mendiko sarbideak itxi egin ditu automobilentzat. Bideak istearekin batera, seinaleak berri egin dira, orain arte zeudenak puskatu eta eskopeta-tiroz josiak zeuden eta.

Gregorio Berrotaran Landa Garapeneko zinegotziak dioenez, "ezinbestekoa zaigu uda iristen denean bide hauek istea, jende askok automobilarekin edonora heldu daitekeela uste duelako. Mendia errespetatzea nahitaezkoa da eta horrelako neurriak hartu behar dira".

Hortaz gain, "txakurrarekin mendira doanak lotuta eraman behar dituela gogorarazteko seinaleak jarri ditugu. Guztioen eskutan dago errespetua mantentzea. Hala ere, beti bada inongo errespeturik ez duenik. Duela egun gutxi Xenda ibilbide batean seinale berriak jarri genituen, eta lau egun geroago puskatu egin ziren. Berriz ere berriak jarri behar izan ditugu".

Miren Azkarate Kultura sailburua Hondarribian izan da

Eusko Jaurlaritzako ordezkari bat, Miren Azkarate Kultura Sailburuak, Gurutz Larrañaga Sailburuordeak eta Arantxa Arzamendi Kultura Ondarearen zuzendariak osatua Hondarribian izan berri da Aitor Kerejeta Alkatearekin bilduta. Bileraren helburua Hondarribiko harresien sendotze eta balioes- tea bermatuko duen akordioaren zenbait xehetasun zehaztea izan da. Akordioa Hondarribiko Udalak, Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak Kultur Ministeritzak sinatu- ko dute.

Aitor Kerejeta alkatearekin bildu ostean, Alkateak berak eta Miren Ayerbe udal arkeologoak bisita gidatu bat egin diete, non Erregi- naren Baluarte eta hasi berriak diren Hego eta Mendebaldeko harresien garbiketa lanak ikusi ahal izan dituzten.

Kerejeta alkateak bisita "oso garrantzitsutzat" jo du. "Eusko Jaur- laritzako Kultur erantzule nagusiak Hondarribian egon dira, eta hori garrantzitsua da, Harresien proiektuagatik interes handia dutela erakusten baitu horrek".



Udala eta Jaurlaritzako ordezkariak Murrua kalean

Aise
BIGNES

Zentro psikopedagogikoa
Laguntza eskola

Miren Zabala

Juan Laborda 2, behea

20280 Hondarribia

Tel.: 943 64 05 65 - 656 71 22 92

E-mail: aisebidasoa@euskalerria.org

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

**SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557**

JAVIER CHOPERENA, GOIZUETATIK WYOMING, KALIFORNIA ETA HONDARRIBIRA



Javier Choperena, bere etxe bakoian

Maiatza heltzen denean, Hondarribira benetako pertsonaia bat etortzen da urtero, filmetan ikusten den bakero horietako bat. Oso gizon ezaguna egin da Hondarribian, agian fenomeno bat. Azken lau urte hauetan gure artean egoten da hilabete batez, hain justu San Pedro kalean pisu bat erosi zuenetik. Pozik bizi da hemen, batez ere Portuan Javier Choperena.

Tomales-en bizi da, Estatu Batuetako Kalifornian. Maiatzean Hondarribira etortzen da, eta egiten duen lehenengo gauza, leihoak ireki, balkoia garbitu eta bere bihotzeko futbol talderaren bandera leihotik zintzilikatzen du: Bilboko Athleticena. Jakin dezagun zerbait gehigo gizon honi buruz, Javier Choperena, "alias el vasco", hala ezagutzen baitute Tomales-en.

PANADERIA - OKINDEGIA
ARRATIBEL



" EGURREKO LABEA "

Barrio Mendelu - C/ Zubieta, 12
Telf: 943 64 19 75 - HONDARRIBIA



Cafetería - Restaurante
faro de higuier

PLATER KONBINATUAK - EGUNERO MENUA
ARRAINAK - HARAGIAK

Carretera del Faro, 58 - Teléfono 943 64 01 94
20280 HONDARRIBIA

Noiz eta zergatik joan zinen Ameriketara?

Goizuetan ez zegoen denontzat lanik, eta aurrera egin behar genuen. Senide asko gara familian, zortzi anaia eta arreba bat. Alde egin zuen lehena Miguel izan zen. Ameriketara joan zen eta ongi zihoakionez, banan bana denetara bost anaia joan ginen hara. Arreba Goizuetan geratu zen, eta beste anaiak Gasteiz eta Lasarten bizi dira. Ni 1978an joan nintzen, Wyoming-era. Hango mendietan 2500 ardi zaintzen nituen. Sei urtez bakarrik egon nintzen han, nahiko triste eta gogorra izan zen dena. Orduan 600 euro kobratzen nituen, hemen asko zena, baina han nahi-ko gutxi.

Artzai izatetik enpresari izatera nola pasatzen zara?

1973tik 1984 bitartean, Kaliforniara bost anaiak joan ginen. Gauza asko gertatu ziren urte horietan. Batzuetan zorte ona lagun izaten da, eta behin nere anaia Dionisiok hanka puskatu egin zuen eta bere ordeztu ni joan nintzen artzai moduan. Gogor lan egin genuen orduan, eta artzai izatetik benetako bakero izatera pasa ginen. Filmeetan bezala ganadua gidatu egiten genuen, batzuetan zaldiz, bestetan motoz.

Denbora eta irabazitako esperientziarekin, gure ganadua erosi genuen. Une hauetan, nik hainbat ardi eta behi dauzkat, sei 'rancho'-tan, denak kotxez ordu erdiko distantzia batean.

Bapatean, artzai izatetik telebistako izar izatera, ezta?

Kontu polita izan zen hura. "William Tell Saloon" izeneko taberna batean geunden egun batean, publizista bat igaro zen handik benetako bakeroak behar zituela esanez. Nere anaia Dionisio eta ni hautatu gintuzten. 'AT&T' telefono konpainiako iragarki bat grabatu genuen. EITBko dokumental bat ere egin zen haren inguruan, izatez, askok iragarki harengatik ezagutzen gaituzte.

Euskaraz hitzegitetik ingelesez egitera, nola izan zen hura?

Ahal zena egiten genuen, nahiz eta hasieran bakarrik ardiekin hitz egiten nuen, mendian bakarrik egoten nintzen eta. Esfortzu handia egin behar izan nuen ikasteko. Kalifornia-ko emakume batekin ezkondu nintzen, duela 23 urte, Linda izenekoa. Hantxe bizi gera, etxe handi batean bi semerekin, herri polit batean eta itsasoarekin. Ezin kexatu.

Amerikar ametsa egia dela uste al duzu?

Ez dut uste. Jende asko da hara joan dena eta kili-kolo dabilena. Nik ez nioke hemengo gazteei Ameriketara joatea gomendatuko, gertatzen dena, bakoitza den bezala dela, eta burugogorra izanda, zerbait lor dezakezula, eta ni oso burugogorra naiz.

Hainbeste urtetan, ez al duzu itzultzeko gogorik izan?

Egia da hasieran, oso, oso gaizki pasa nuela, baina orain han geratzearekin ondo egin nuela pentsatzen dut. Nere anaiekin egoteak ere gauzak errezten zituen, baina denborekin gutxiago geratu gara, Jesus Mari eta Dionisio anaiak hil egin dira. Beste anai Jose Ignaciok eraikuntzan lan egiten du eta azkenik, Miguel Tomales-en bizi da, lora-zaintzan, eta ni, bakero lanetan.

Noizbait itzuliko naizen edo ez Goizuetan pentsatu izan dut, baina azken aldiotan gehiago pentsatzen dut Hondarribian, asko gustatzen zaidalako. Baina orain 48 urte ditut, eta buruan Tomales eta Kalifornia dauzkat. Jubilatzen naizenean han biziko naizela uste dut. Ez dut oraindik Euskal Herriaren falta somatzen. Faltan botatzen dudana gauza bakarra, Athletic de Bilbao!!



podologoia

Unai Ortiz

kiropodia - quiropodia
ortopodologia - ortopodologia
ordenagailu bidezko miaketa
biomekanikoa
exploración biomecánica
computerizada



Matxin de Arzu 10, 2 bajo
20.280 HONDARRIBIA

Tel: 943 111 946
www.unaipodologoia.com





**Boogies
QUADS
125 cc**

1.690 €



1.290 €

Txiplao nº 7 - Telf 639 676 676
Hondarribia

Lourdesen izan ginen

Bai, Lourdesen izan ginen. Ekainaren lehenengo eguna zen. Orain 50 urte ere hantxe izan ginen. Egun hartan, orain 50 urte hain zuzen, berrogei mutilek apaizgoa hartu genuen. Bada zerbait berrogeiko hau. Gaurregun aleka, noizbanakatan ikusten ditugu apaiz egin berriak.

Aurten gertatutakoari begira jarrita, urtemugaren usain gozoa datorkigu aurpegiara. Bizialdiaren iraupenak, gailur horretara iristean, eskerronezko ateak zabalarazten dizkio edozeini. Guri ere bai. Gure eskutik ezkondu diren zenbait bikoteri ez ote dizkiogu zorionezko bedeinkapenak eman, urrezko eztaiak ospatzera iritsi diren orduan!!! Eta orain, etxera etorri zaigu egoera berdina.

Oro-it-muga zoragarria ospatzera hurbildu ginen Lourdesera. Gure Elizbarrutari ospakizuna zegokion eguna zen, hain zuzen. Aurreko hartan bezalaxe, Pio X.aren lurpeko elizan ginen. Hogeita bost mila jende kabitzen dituen estalpea da.

Aurtengoan, nazioarteko Elizen bilera burutzen zen bertan. Gurea zen, hala ere, ordu jakin baterako bertako nagusitasuna. Egun eta gehiago apaiz meza-emaleak. Mundu guztitik etorriak; hiru Gotzai aldarean, Donostiako Gotzai aldareburu.

Gu, hamasei apaizkide gipuzkoar, nabarmentasunez aipatuak eta bereixiak agertu ginen hango adierazpenetan. Poza aurpegietan, baita bihotzetan ere. Berro-

geitamar urtez lehenago ospatu genuenari aurrerabide emanez, hitz nagusiak berritu genituen Gotzaiarekiko lotura estuan.

Dena den eta besteak beste, haxe ere esan beharra dut: aurten bildu ginenen artean, hamasei apaizkidez gainera, gizon bat falta zela aldarean: NERE AITA.

Apaiz egiteko egunean, Gotzaiak olio santuz eskuak igurtzi ondoren, norbaitek, kasu hartan nire aitak, eskuak zintza edo xingola txuri beltz batez lotzen zizkiguten. Han igo zen ESTEBAN nere aita, neri, bere semeari eskuak xamurki, gehiegi estutu gabe lotzera.

Aurten ez nuen begiz ikusi, baina han zegoela banekien, maitasun-misterioaren hegaletik besarkada gurasotiarra emanez. Nik nere aldetik, sinistu ere sinisten dut, beste guztiekin ere horixe bera gertatzen dela, joan direnak oroitordu bereixietan bihotzeratzen ditugunean. Olerkariak zioena egia dela uste dut nik ere: 'Heriotzak urrutira eramanez zizkigunak, hurbilekoak baino hurbilago ditugula, etxekoen ibilbidea legez zaintzen'.

Gertakizunak beraz, lepotik hartu nau. Nik neuk egin dudana gainera, beste norbaitek ere zerbait egina izango du, 75 urte munduan, eta horietatik 50 apaizgintzan iraun ahal izan dudanerako. Batetik zorionak, bestetik zorionak... hitz gozo hori entzuteaz ezin aspertu. Nik neuk hamaikari eman dizkiet zorionak. Ez nuke aspertu nahi gauza bera aurrerantzean egiten.

Hainbeste ahotatik jaso dituzdan zorion-hitzak, eskerronezko

lore-xorta bakarrean bildu nahirik, begikeinu adiskidekor bat bidali nahi diot "Bizargorri" nere lagunari. Aldizkari honetan bertan, aurreko alean, eskeini dizkidan bertso eder, xamur, egoki eta borobilengatik. Nere bi arrebak ere gogoan izan ditu. Eskerronak, Jexuxmari.

*Eskumuin xamur, agur bero bat
luma bizkor duzun horri
lehendik ere piztu dituzu
dizdiz, bertsoz hainbat orri:
'zorion'-hitzez, lore-jantziak
oiartzuna zait etorri.
Bihotz osotik albiste soil hau
nahi nizuke igorri:
Esker, graziak, graziak esker,
Lagun jator "Bizargorri"*

Eta hau guztia horrela delarik, igandean egin zitzaidan omenaldia ezineko oroi-garri daramat bihotzean. Hitzik ez dut, behar den neurrian nere eskerrona agertzeko, ospakizun nagusi hartan parte hartu zuten guztiei. Lehenaz gain, aurreruntzean ere, zerbitzu apalaren zelaian on eginez jarraitzearen landarean lantzen jarraitzeko eragin birberitua loratu baita nere barne-arnastegian. Luzaroan iraun dezan nahi nuke, egun hartan gure artean sutan leher-tu zen ongi-nahiaren suziak.

Eskerrik beroenak guztiei



Martin Iturbe

TRUCK
DISCOTECA
HONDARRIBIA
Foru Kalea z/g

PUB
Kai zahar
Almirante Alonso, 12
kai zahar

ARRAUN ELKARTEA
GINNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BUILDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAIRUA
ETA GORDELEKUA

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN" !!!
Hondarribia Arraun Elkartea - Tel. 943 64 01 61 - 20280 Hondarribia

Kirol Taldea eta Arraun Elkarteak izango dira Aholku Batzordean Kultur eta Kirol elkarten ordezkariak



Aholku Batzordea osatzeko bilerak Areto Nagusian ospatu dira

Atzo burutu zen Hondarribiko Udaleko Areto Nagusian Hondarribiko Plan Orokorra idazteko osatu behar den Aholku Batzordearen bigarren bilera informatiboa. Bertan izan ziren herriko kultur zein kirol elkarteak, eta denen artean Hondarribia Kirol Taldea eta Hondarribia Arraun Elkarteak hautatu zituzten kultur eta kirol elkarten ordezkari bezala.

Ondoren, Aitor Kerejeta alkateak legealdi honetan Udalak dituen proiektu nagusienak azaldu zituen.

Aitor Kerejeta Alkatea pozik azaldu da "Aholku Batzordea eratzeke ematen ari garen urratsak ikusita. Herriko Plan Orokorra idatziko duen taldea izango da, beraz, oso gai garrantzitsua. Etorkizuneko Hondarribia nola izango den erabakiko da bertan.

Elkarteak asko laguntzen ari dira eta denen artean lan ona egingo dugu".

Kerejeta Alkateak argi utzi nahi izan du "zein izan den Kirol Taldea eta Arraun Elkartearen lana. Ez dira beraien interesak defendatzera joango Aholku Batzordera, Hondarribiko kultur eta kirol elkarten interesak baizik".

CARROCERIAS AMUTE

Fundada en 1968

Reparación general del automóvil

Bº Mendelu
c/ Amute Alde, 19

Tel./Fax: 943 64 11 41
20280 HONDARRIBIA

K21
KALITATEA
Certificado de calidad K-21
K-21 kalitatearen ziurtagiria
Empresa Registrada
N.º 1 / 05 / 132


PINTURAS TXINGUDI MARGOLANAK

Cabina de lacado
Restauración de fachadas
Trabajos interiores

Pol. Industrial Txiploa, 28 • 20280 HONDARRIBIA
Telf./Fax: 943 647 344
e-mail: txingudi@telefonica.net

ALDE ZAHARRA JENDEZ GAINEZK

Hamargarren urtea bete du Erdi Aroko Azokak Hondarribian. H. arrakastatsuenetako batean bilakatu da, inguruko herrietatik et. tako laguntza eskaini dio gainera azokari, aurretik eta geroa si izan zen eta. Bizilagunek bere balkoietan estandarteak ja Pelaez Turismoko zinegotziak esan duenez, "inoiz baina jerrri diren guztiak pozik joan dira. Ziur datorren urtean hemer



A ERDI AROKO AZOKA IKUSTEKO

lasierak ez baziren errazak izan, dagoeneko urteko jarduerarik
ortzen den jende kopurua ikusita behintzat. Eguraldiak merezi-
ago eguraldi txarra egin bazuen, bi egun horietan eguzkia nagu-
arri dituzte, horrek xarma berezia eman diolarik inguruari. Maite
nde gehiago ibili da, eta bere produktu eta lanak erakustera eto-
n izango ditugula”.



pie



Hiru ikastetxeetako ikasleek bisita egin dute arrantzaleen kofradiara

Arrantzak herrian suposatzen duena bere begiez ikustea lortu nahi da

Hondarribiko hiru ikastetxeetako ikasleak Done Pedro Itsas Gizonen Kofradiara hurbildu dira gidatutako bisita bat egitera, arrantza zer den bere begiekin ikusi dezaten, ez bakarrik arraia harrapatzea, baita sare konpontzaileak eta gelarekin egiten den lana ere.



Sare konpontzaileek hurrei sareak josten erakutsi zieten

Hezkuntzako zinegotzia den Ixabel Olazabalek ekimena "oso interesgarritzat" jotzen du. "Kofradia gurekin kontaktuan jarri zen, eta gure aldetik pausuak eman ditugu hurrei eta ikastetxeei bertara hurbiltzea errezteko. Horrela, arrantzak Hondarribian zer suposatzen duen ikusi ahal izango dute".

Norberto Emazabel abad nagusiaren hitzetan, "beharrezkoa da horrelako ekintzak egitea. Arrantzak historia handia du gure herrian, nortasunaren zati bat da. 'Bertoko' gero eta arrantza gutxiago ditugu eta pena litzateke gure herriko gazteek ezer ez



Ikasleak hadi Norberto Emazabelen zer esango duen

jakitea, eta Kofradiara etorri eta atuna zer den, berdela, arrantza tradizionala, sare konpontzaileak... Zerbait polita eta beharrezkoa da. Gainera, bideo bat erakutsiko diegu".

Bisitan parte hartu duten ikasleek lan bat egin beharko dute. Ondoren, ikastetxe bakoitzetik bost lan hautatuko dira irabazle bezala, eta hamabost garaileek hegaluze bat jasoko dute sari moduan.

mandragora studio

t. 943 644 639 m. 629 564 723
unai.mandragorastudio.com
www.mandragorastudio.com
matxin de arzu 14 20280 hondarribia

eukeni optika

optiko - optometristak

San Pedro, 57.

20280 Hondarribia - Gipuzkoa

943 643 805

SAN JUAN BEZPERA ETA ARRAUNLARIEN AURKEZPENA

San Juan bezperetan ohitura bilakatu da sua piztu eta Portuarraken Asoziazियuan antolatzen duen jaialdiarekin batera, aurtengo estropada denboral-

dian arraunean arituko dira A eta B traineruko arraunlarien aurkezpena egitea. Aurten pantaila erraldoi bat jarri dute Elkarteko kideek, denek behar moduan jarraitzeko.



Aurkezpenarekin batera sua piztu zen Kai Zaharrean



Aurkezpen lanak Xabier Gezalak egin zituen



Zuzenean pantaila erraldoi jarraitu zen aurkezpena



Don martin Iturbe, Joseba Llorenteren laguntzarekin bedekitzen

ILEAPAINDEGI MISTOA

LAIDA

San Pedro Kalea, 71 - behea
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 64 13 59
(Aurretiaz ordua eskatu)

Ireki Berria !
Ireki Berria !

MA SAI

estetika
masai
zentrua

Iratz Armabarrena

San Pedro 30 20280 HONDARRIBIA
(sarrera Zuloagatik/entrada por Zuloaga)

t 943.646.320



Udalak arrantzaleekin bat egiten du bere eskaeretan

Hondarribiko Udalak bere solidaritate eta laguntza eskaini dio San Pedroko Kofradiari eta arrantzaleen familia osatzen duten guztiei, une hauetan sektoreak bizi duen egoera latza dela eta, batez ere gasolioaren prezioak eraginda.

"Hondarribitik Madrilera lau autobus joan dira" dio Aitor Kerejetak maiatzaren 30eko manifestazioan parte hartzeko. "Armadoreak eta arrantzaleak bertan daude bizi duten egoera salatzeke asmotan. Hondarribitar guztien izenean bere eskariekin bat gaudela esan nahi dut, eta gure animorik beroenak bidali ere".

Manifestazioan 20.000 kilo arrain banatuko dira, atzo bertan arrantzatuak, jasotzen dituztenek arrantzatzen den arrainaren kalitatea ezagutu dezaten eta sektoreak bizi duen egoera nolakoa den ikus dezaten ere.

Maiatzaren bukaeran Madrilan izan dira euskal arrantzaleak. Baxurako eta alturako dozenaka arrantzale. Hondarribian bost autobus bete dituzte, eta beste zenbait portutan ere hitzordua zuten goizetik. Gasolioaren garestitze etengabeak arrantza

galbidera daramala salatzeke manifestazioan parte hartu eta, bide batez, bilera egingo dute Frantziako eta Italiako kofradietako buruekin. Tokian tokiko gobernuek eta Europako Batzordeak berehalako neurriak hartzea nahi dute.

Izan ere, erregaia ikaragarri garestitu da azkenaldion. Urtarritik hona batez ere. "Urtarrilean, gasolio litroko 0,42 euro pagatzen genituen. Orain, aldiz, litroko 0,70 pasatxo". Arrantza "krisi larrian" dagoela azaldu du Hondarribiko abade nagusia den Norberto Emazabel.

Alturako ontziek egunero 3.500 litro gasolio kontsumitzen dituzte. "Hilero 25 egun eta urtero hamar hilabete ematen ditugu itsasoan. Urtebetean, beraz, milioi bat litro kontsumitzen ditugu. Egin kontu ". Alturako ontzien ekoizpen kostu guztien erdiak eragiten ditu erregaiak jada. Eta sektorearen egoera, beraz, "jasanezina" da, Emazabelen ustetan. Baxurako ontziak ere egoera larrian daude, gainera. Horiek gasolio gutxiago kontsumitzen dute: 350.000 litro urteko. Irabaziak ere apalagoak dituzte, ordea, eta petrolioaren prezioaren goranzko joera amesgaiztoa da. Are gehiago antxoa harrapaketek -hirugarren urtez jarraian- debekatuta jarraitzen duten honetan, eta hegaluzearen arrantzaldia hastear dagoen honetan. Ekoizpen

kostuei nekez aurre egin ahal izango dietela ohartarazi dute. Baxurako arrantzaleek, ordea, itsasora joateko asmoa dute, oraingoz.

ARRANTZALEEN KOFRADIAN MAIATZAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK

Maiatza osoan ez da arrantzarik egin.

(Fermin Olaskoagak jasotako datuak)



Hondarribiko setio handia gogoratuko da uda honetan

Duela 370 urte, Hondarribiak bere historiako setiorik gogorrena jasan zuen. Uda honetan zehar garai gatazkatsu haiek gogora ekarri nahi ditugu, interes handiko ospakizunen bitartez.

1638ko uztailaren 1ean, Frantzia eta Nafarroako errege zen Luis XIII.aren jeneralik aipagarriena zen Condé-ko printzearen gudaroste boteretsuak Hondarribia setiatu zuen. "Hogeita hamar Urteko Gerra" deritzon epe luzeko gerra batean murgilduta zeuden Europa osoko eta bere kolonietako biztanleek ezagutzen ez zuten ia lauorgeri urteko bake eta segurtasuna lehenengo aldiz hautsi zen gotorleku honetan bizi zirenentzat.

Setiopean zeuden hondarribiarrek eta bertan zen goarnizioak bi hilabetez, behin eta berriz, erasoei aurre egin ondoren, Condé handia, bere helburuak burutu gabe, presaka erretiratu zedila lortu zuten. 1638ko udako ausardia militar zail honen eskerronez "hiri oso prestu, oso leial eta oso adoretzu" titulua eman zitzaion Hondarribiako hiribilduari eta Frantziako erregeek ez zuten aurrerantzean hura indarrez hartzeko saiakerarik egingo ezta Luis XIV. harroputz berberak ere.



1638. urtean Hondarribian itxura hau zeukan

370 urte igarota, Hondarribiko Udaletik egokitzen ikusi da orduko memoria berreskuratzeko, gertakari historiko honek Hondarribian eta bertako biztanleentzat daukan garrantzia ikusita. Hona-ko jarduera hauek antolatu dira:

>> On line erakusketa

"Hondarribia 1638/2008: Setio Handiaren 370. urteurrena" online erakusketa

Hondarribiako historian hain eragin handikoa izan den gertaera hau oroitzeko antolatu da online erakusketa hau. Bertan setioaren inguruko gertakariak, lekuak, protagonistak, tresnak, armak, irudiak eta abar daude ikusgai. Uztailaren 1az geroztik ikusgai egongo da.

www.hondarribia1638.info

>> Setio Handiaren Kazeta

"Setio Handiaren Kazeta"

Setioak iraun zuen bi hilabeteetan zehar kazeta honen bost ale argitaratuko dira, hondarribiarrek gertakari larri honen momentu berezien berri izan dezaten. Horretarako hiritarren artean banatuko da ale bakoitzari dagokion egunean. Gainera, gertakari aipamen motzak egunero azalduko dira komunikabideetan.

(Hemen kazeta banatzailearen irudia eta bere ondoan kazeta agertuko den egunak:

Kazeta banatuko den egunak:

Uztailak 7

Uztailak 18

Abuztuak 14

Abuztuak 30

Irailak 8

>> Hitzaldi zikloa

Hondarribia 1638/2008: Setio Handiaren 370. urteurrena": hitzaldi zikloa


2008-X-2: **Álvaro Aragón Ruano** (EHU/UPV): "Vervins-etik Piriniotako Bakea arte: Balidoen Aroa Espainia eta Frantzia".

2008-X-8: **César Fernández Antuña**: "Las fortificaciones de Hondarribia ante el Sitio de 1638".

2008-X-16: **José Ramón Guevara Urquiola**: (Hondarribiako liburuazaina/Bibliotecario de Hondarribia): "Hondarribia, 1638: el bloqueo naval".

2008-X-23: **Carlos Rilova Jericó**: (Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos): "Un día en la vida cotidiana del siglo XVII".

2008-X-30: **Carlos Rilova Jericó**: (Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos): "El Gran Asedio, unas consecuencias de larga duración".



EXPERT
GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA



jatetxea • restaurante
erretegia • asador
itsasargi 8 • 20280 • hondarribia
tel.fax 943 644 622 • kaialde@yahoo.es

Foru Aldundiak Ama Guadalupekoa ikastetxea saritu egin du

Eskola kirolean urteetan zehar egindako lana zoriondu da

Eskola kirola denboraldia amaitu da beste urte betez. Herriko hiru ikastetxeetako ikasle ugari biltzen dituen ekimena da, Talaia, Ama Guadalupekoa eta San Jose ikastetxeak. Ehundaka haur aritzen dira kirol ugari praktikatzen. Urte askotan alor honetan egindako lanaren ezagupen bezala, Ama Guadalupekoa Ikastetxeak, Gipuzkoako ikastetxe guztien artean "Gipuzkoa Kirolak"

saria jaso du, Foru Aldundiaren eskutik.

Sari hau jasotzea ez da txantxetako gauza, urte askotako lana dago horren atzean, eta guztiaren begirale eta zuzendari bezala, Maximo Martinez eta Pello Arruabarrena. Beraiekin egon gara urte guzti hauetan egindako lana nolakoa izan den jakiteko, sariak ez baitira zerutik erortzen.

1979. urtean, Saint Maur ikastetxeko arduradunei patioan zeuden zuhaitzak kentzeko baimena eskatu zitzaientzen, bertan futbito, eskubaloia, saskibaloia eta bolei-boolean aritzeko asmoarekin. Hauen baimena jaso ondoren hasi zen Eskola Kirolaren ibilbidea Ama Guadalupekoa ikastetxean.

Pista hartan ere atletismoa, tenisa, mahai-tenisa eta karabina-tiroa bultzatu ziren. 1984. urtean, Saint Maur eta Ama Guadalupekoa ikastetxeen bateratze prozesua hasiko da. Eraikin bakoitzean



Maxi Martinez, arduradunetako bat, izan zen saria jaso zuena

RESTAURANTE

ARRANTZALEEN KOFRADIA

Eguneko menua, Ekitaldiak, Ibilaldi belaontzian,
Menu bereziak, Komunioak

www.navegavela.com
Bela ikastaroak

Telf.: 943 64 42 12

Paseo Ramón Iribarren, nueva lonja - 20280 HONDARRIBIA

Hemen zure opariak eros ditzakezu; PSP, PS2, filmeetako pertsonaiak...

The Big Orange

Puntuak opariengatik aldatu, Orange txartelarekin

Etxez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba

eskola kirolaz arduratuko zen pertsona bat egotea egokia ikusi zen, eta Pello Arruabarrena geratu zen Lehen Hezkuntzako arduradun, eta Maximo Martinez Bigarrenengan.

Kirol diziplina ugari

Ordutik aurrera hasiko da benetako indarra hartzen eskola kirola ikastetxean. Arruabarrena eta

Martinezek urteetan egindako lana oso oparoa izan da. Ikusi besterik ez da zer nolako kirol zerrenda praktikatu den ikastetxean: aipatutakoez gain, judoa, mendia (1990. urtez geroztik ehun irteera baina gehiago eginak dira), pilota, xakea, beisbola, sofbola, badmintona, arku-tiroketa, igeriketa, arrauna (Arraun Elkartearen laguntzarekin), Bela (Itsas-kari Baitarekin batera), txirridularitza (Txirridulari Elkartearekin), eski irteerak, izotz gaineko kirolak, aerobika, surfa, eskalada...



Ama Guadalupekoa ikastetxeko neskak futboleantzen dira, beste ikastetxeekin leihan

"Guzti hau egitea posible izan bada, gehienbat Saint Maur ikastetxeko ordezkariak eta Hondarribiko Parrokiak kirolaren alde egindako apustuagatik izan da, baita Udaletik izandako laguntzagatik ere" dio Martinezek.

Merezitako saria jaso du Ama Guadalupekoa ikastetxeak, kirolaren alde egindako lanagatik. Aurretik hala segi dezatela, Hondarribiaren eta bere gazteen aldekoa izango baita.

OTXOA

JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

SOLSTIZIOARTEKO ARGITUNA

Nola esan ...

Hilabeteak dira jadanik udako solstiziotik,
Juan donearen su garbitzaileen bezperetan zen
perlesiak jo zintuenean
eta
ospitaletik ospitalera
egonaldi luzez ibili ostean,
-eguzkia gorenean argi
zuga tristesia nagusi-

saminez barneratu genuenetik
erraiak jaten doakizun
ia menderatua zaituen gaixotasun horrek...
-zainketa xamurrenei eskergabe-
heriotzara eramango zaituela
epe laburrean....
ezinbestean.

Txosten medikuak horrela zioen... sendaezina
pausatuz estu bat- batean
ariman mina eta nola esan...

Nola esan ...
orain,
-dagoeneko udazkena izaki,
sinfonia koloretsuaz erruz oro ukitua
zuga eriak lastozko tindura...-

eguerdi aldera
ohetik atera,
irrikaz ezartzen bazara eguzki printza xumeak dastatzera
ekialdera begirada
eta arratsez,
itzalak xahutuz
ekidinez errainuak
pausoak laburbilduz bazoaz
nekez
mendebalderantz
azken argi izpietan abandonatzera...
irrifartsu
ozenki.,
nola esan...
Nola esan ...

Urritzen doazen gorputz ehunen
borobiltasun haiek

-olio usaintsuen igurtziz
orain erraz menderatzen
leunki ferekatzen ditudanak-

ez direla kasualitate hutsa
eta ez dutela inongo erlaziorik
dastatzen dituzun elikagaiekin
edo dagoeneko jasan ezin dituzun
jaki gogoko haien urritzearekin...

-baraualdiak lehen ez bezala
mehartu zaitu egun zinez patuak-, ... nola esan...

Nola esan ...
Ezina eta menpekotasun fisikoek,
etxe eta inguruarekiko
eskertze eta onartze
jantzi sakonagoen geruzaz
bildu badizu izanaren mamia goxo- gozo...
opil
epel
apal,

garai bateko zure zortearekiko hitz garratzak
ezkutatu badira ezpainetatik
desagertu grinak bihotzetik,
gaurko egunerokotasunean,
umoretsu eta adeitsu
azalduz eta izanez,
biziaren osotasunarekin halabeharrez
pozak eta penak nahasiz...
gutziz eztiz.....nola esan...

Nola esan...
Zure urtebete eguna ospatu berritan,
agian azkena
izanen dena...



Arantxa Otegi



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL
Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88 20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

zahartzaroko adinak
jakinduriaz
oparo oparitu bazaitu,
dagoeneko hiltzeari ez diozula beldur
sumatzen baitut,
aspaldiko lagun minaren esperoan zaudela
dirudizu
ate zabalaren babesera hurbildurik
harreretan duinena eskaini nahirik
zu,
zutik
han,
etxeko atarian...
baserriko sarbidean
eskatzean...
nola esan...

Nola esan ...
Jaiotzetiko begi argiak gero eta argiago dituzunean,
gardenak lez
sortzez...
nola esan orain....
nireak ilunagoak
letozkeen, ez, datozen gabezia eta tristuraz jota
lausotzen hasiak direnean
barne nahigabea albistearekin erantsi zaidanean
zure etorkizun laburren
-amaieraren-

azken uneen
zalantza amaigabea...
nola esan...

Noiz ote?
gerora, laster, orain... / hileak, asteak, egunak...

Nola ote ?
atsedenean eta pakez.../ ezinegonean eta oinazez.....

Neroni,
neu ere
hain maite dudana izeba xaharraren
hurbileko azken lagunena,
-niretzat mehatxu/ nahi eta ezin onartu-,
heriotza denaren esperoan
-dagoeneko zelatan dabilena
kortejatze jolasetan murgildurik harira
eta neu urduri hari begira -
itxaroten isil-isilik jezarrita,
sufrimenduen atzaparretan,
tarteka balantzaz eskegita....nola esan...

Nola esan...orain...

Nola eman zuri
zurea den egiaren berri,
-zurekin auzitan dabilen minbizi galgarri-
zu, nahiz plazerez nahiz oinazez
zure bizitzaren dantzan txertatua dirau duzunean....
hain amultsuki ..

Nola esan bada zuri,
zurea den ,
zure bizitzako altxorraren
zure sekretu isila...
zure sententzi borobila:
ZU LASTER HILA....
ZU LASTER HILA.....?

Nola esan...orain ? Nola esan , Ala ez esan ?...

Ezin, ezin, ezin esan orain ...,
zendu baita jadanik uda
- herenegun San Simon eta San Juda-
epe laburrean ezinbestean ...zu hilotza...
halere itxaropentsu gaur ene bihotza
zeren
zorionez,
neguko solstizioa urren
eguzkia beheenetik berriro ilusioz so
ortzi zabaleko goi liluraz

birberrituz
zuzenduz
ugalduz

gorantz eta beherantz
argia ...

BIZITZARA nahiz HERIOTZARA

iHondarribian!

txuntxumela
zure **SUPER BIO**
ETKEZ ETKEKO ZERBITZUA
HENDAIA-HONDARRIBIA-IRUN
☎943 641450
Santiago kalea, 33. Hondarribia
✉ biotxuntxu@terra.es

Ofertas Eskaizak

- OLO ESNE NATURALA, OATLY L 1. 2,25 €
4+1 dohainik eta 9+3 dohainik
- JATORRIZKO ARROZ ESNEA LIMA L 1 2,26 €
4+1 dohainik eta 9+3 dohainik
- SOJA ESNEA, KALTZIO SANITURI L 1 2,06 €
2+1 dohainik eta 4+3 dohainik
- ALEMANIAKO GARAGARDOA 500ml 2,45€
Iturburuko urarekin 1+1 dohainik
- SOGHURT FRUTANITZA -MARRUBIA LIMA 1,98 €
330 ml 2+1 dohainik
- PRAPIKA EDO PATATA NATURALA EDO SNACK-A 2,40 €
1+1 dohainik

EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



TERRA SIGILLATA

Terra Sigillatakiak dakarzkigu liburu honek. Bizi dugun ingurune gordin, nabar zalantzakor eta euskorren puska.

(A)Saltus Vasconum, (Des)Ager Vasconum, (A)Mare Vasconum: fantasi-azko eta egiazko hiru espazio. Hori-etan barrena ikusiko ditugu Hitzaz Mendi elkarteko kideak etengabeko joan-etorrian, ahotsen anabasiatik ahots bateratuaren bila. Oroimenaren eta errealtatearen pitxer hautsia berrosatu nahian.



BELA KABELATIK TERNUARA

Bernardo Atxaga idazlearen obra barruan Haur eta Gazte literaturak izan duen eboluzioa eta eragina aztertzen dira saiakera honetan.

Asteasun jaiotako idazleak beti tartekatuta ditu haur eta helduentzako obrak bere produkzioan eta ikerketetan bereizturik aztertu badira ere, nabarmena izan da bi esparru horien arteko harremana. Horrela, helduen obretan izan diren aldaketak, estilo, tematika, lexikoa... sarritan HGLren jaso ditu Atxagak.

Liburu honetan murgiltzen denak, beraz, Bernardo Atxagaren obra hobeto ezagutzeko parada izango du; 80ko hamarkadaren hasieratik gaur egunera emaniko eboluzioa eta genero ezberdinen artean izaniko harremana. Hori guztia oso egitura berezia duen obra batean, idazleak hitz egiten baitu hasieran bere obrari buruz eta obrak, amaieran, idazleari buruz



EZ DADILA EGUZKIA SARTU

Gerrako lubakitik futbol-zelaira eramane zizuten hainbat gazte 1937ko udaberrian. Futbolariak ziren denak ere, Espainiako ligan hainbat ekipotan jokatu ohi zutenak, baina

baloia ordez fusila hartu zutenak, Euskadi eta Errepublikak defendatzeko. Agintariek, ordea, galtza motxetan jarri zituzten berriz, Euskadiko selekzioa osatuz eta Europar barrena zenbait partida jokatuz mesede handiagoa egingo zutelakoan. Propagandaren partida inportantea baitzen gerra irabaztekoan, lubakiak bezainbat.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiria Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Histori-aurretik frankismora arte. Horretarako 15 historialariko

taldearen lankidetzan izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidagarritasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburu bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astizaran eta Txomin Sagarzazu.



PRAILEAITZ

Debako Praileaitz I aztarnategia babesteko liburu bat da. Artez betetako liburua, artea babesteko sortua. Eguneko artistek sortua garai bateko artea ez galtzeko.

Praileaitz I liburua Praileaitzen Lagunak elkarteak argitaratu du, arlo guztietako 210 artistaren ekarpenekin, euren lanarekin eta euren iritziz argiarekin. Luxuzkoa da kanpotik atzo aurkeztutako liburua. 29 x 29 zentimetrokoa, 240 orrialdekoa, azal gogorrekua eta hiru hizkuntzetan argitaratua, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez



HONDARRIBIKO BASERRIAK

Hondarribiko udalerrian dauden baserri guztien bilduma da, agiri eta bizi izan ziren familia-zerrendarekin, eta abar... Fermin Olaskoaga, Luis Mari Elosegi, Jose

Ramon Gebara eta Koldo Ortega hondarribiarrek egindako lan bikaina dugu. 546 orrialdetan gure baserri eta aitzindariak buruz zerbait gehiago jakiteko aukera paregabea. Auzoz-auzo gaur egun dauden eta egon diren baserrien informazio zabala topatuko duzu bertan, ongi dokumentatua gainera



OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

San Pedro 12 - HONDARRIBIA

Telf: 943 64 25 25



Gazteentzat informazioa San Pedro kaleko bulegoan

AUZOLANDEGIAK EZAGUTZEN AL DITUZU? Udako oporretan gozatzeko aukera aparta da!

Mota askotakoak daude: solidarioak, gizarte egitasmoak, naturakoak...
17 urtetik gorakoentzat dira gehienak estatu-mailakoak zein nazioartekoak.

INFORMA ZAITEZ GURE BULEGOAN

Edo ondorengo web orrialdetan:

www.gazteaukera.net

www.gipuzkoagazteria.net/uda

UNIBERTSITATEKO MASTER IKASKETEN KOSTUA FINANTZATZEKO MAILEGUAK

Deialdigile: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa

Baldintzak: Lehenbiziko unibertsitate titulua 2003an edo beranduago eskuratu duten unibertsitateko tituludunak, baldin ospea duen unibertsitateko master ikasketaren batean matrikulatuta badaude.

Dirua: Gehienez ere 6.000,00 euro mailegu-hartzaileko.

Edukia: Unibertsitateko master ikasketen kostua finantzatzeko maileguak.
Maileguak % 0ko interen finkoa izango du.

Epea: 2007-09-01etik 2008-07-31ra arte.

Informazioa: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa
Alcalá, 34 - 28014 Madril
Telefonoa: 91 7018000

LOGO BERRI BAT SORTZEKO LEHIAKETA DEIALDIA

Eusko Ikaskuntzak Ei Gazte! lehiaketaren lehen edizioa jarri du abian. Edizio honetan gazteria sailaren logoa diseinatzeko deialdia egiten du elkarteak. Baldintzak gutxi dira eta saria, erakargarria:

- Gaztea izatea (16 eta 30 urte bitartean).
- Gaitasun sortzailea eta gustu estetikoa izatea.
- Epea: Maiatzaren 15a arte.
- **Saria: 1500 euro.**
- Lanak Eusko Eusko Ikaskuntzako Gazteria Sailara bidali behar dira (Miramar Jauregia, Miraconcha 48. 20.007 Donostia)
- Informazio gehiagorako:

www.eusko-ikaskuntza.org webgunean edo 943 31 08 55 telefonoan.



ONDARTZ EDERRA

Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56



Terapeuta manual - Osteópata

- | | |
|-----------------------------|------------------------|
| ★ Masajes | ★ Esguinces |
| ★ Movilizaciones | ★ Vendajes funcionales |
| ★ Estiramientos | ★ Lumbagos... |
| ★ Tendinitis / Contracturas | |

Plaza San Marcos, 2 bajo (Puntal)
20280 HONDARRIBIA

Teléf.: 660 080 349

NOLA DEITZEN ZAIO ETXE HONI ?



Heldu gara berriz ere irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Batzordean jasotzen den gutun kopurua ilusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ohartu gara. Ia gehienek gainera erantzun egokia ematen dute. Maiatzeko alean jarritako galderari ia 60 pertsonak erantzun diote, eta hori galdera ez zela hain erraza.

Azken alean egin genizuen galderari irakurle gehienek egoki erantzun dute. Denen artea, saria irabazi duena **Martina Villar Cuesta** izan da. Afaria berarentza da beraz. Bigarren saria, liburu-sortak hain zuzen, **Ana Iza Mikeleiz**-entzat da.

Oraingo honetan Alde Zaharrean dagoen eraikin historikoenetako baten inguruan galdetzen dizuegu. Guztiok jakin badakigu non dagoen, baina ez agian ze izen duen eta zertarako balio izan duen historian. Hori dela eta, etxearen izena galdetzen dizuegu. Erantzuna izandakoan, bidali Euskara Zerbitzura uztailaren 15aren 20 aurretik.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047



eguerdiko menuak
sukaldaritza berria
eguneroko plater berriak
gauetz, gure karta zabala, informala

telf.: 943 641 952

san pedro kalea, 79
20280 hondarribia

Biteri ikastetxea duela 100 urte



Gauzak asko aldatu dira Hondarribian. Jakina da hori, eta paisaia aldaketa horren ispilu nabaria da. Irudi honetan ikusi dezakegunez, azpiegiturak ez dira inondik inora berdinak, eta horrek ondorio argiak ekarri dizkigu.

Duela 100 bat urte ateratako argazki honetan ikus daitekeenez, historiak bere bidea jarraitzen du eta horren aurrean ezin ezer egin. Biteri Eskola 1903ko irailaren 12an ireki zen, Pedro de Viteri y Arana arrasatearrak bere ondasunen gehiengoa irakaskuntzaren eman zuenari esker. Gipuzkoako herri gehiagotan ireki zituen eskolak.

Biteri ikastetxeko lehen irakaslea Ambrosio Saseta izan zen, duela gutxi Hondarribian omendua izan den Kandido Sasetaren aita hain zuzen.



okindegia • gozategia



kafetegia

San Pedro 49, bajo
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 641 995

Zuloaga, 8
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 111 656



M.A.G.
ASESORIA AGINAGALDE

San Pedro, 3 - Atzekaldea
943 64 03 66

GESTIOA:

- * KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA
- ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
- * ASEGURROAK

Maiatza2007

JAIOTZAK MAIATZAN

3an: **AIMAR Arozena Zubiri**, Hondarribiko Iñaki eta Irungo Silviaren semea.
 3an: **MAIDER Zubillaga Lazkanotegi**, Hondarribiko Iñaki eta Hondarribiko Irantzuren alaba.
 4an: **NARAH Iñarra Mendizabal**, Hondarribiko Asier eta Irungo Nataliaren alaba.
 4an: **JULEN Garcia Novillo**, Erreterriako Senen Eduardo eta Donostiako Maria Juanaren semea.
 5ean: **MIREN Cerro Villanueva**, Hondarribiko Ibon eta Burgosko Cristinaren alaba.
 5ean: **NIKOLE Lasa Collantes**, Irungo Gorka eta Irungo Begoñaren alaba.
 8an: **ANE Aizpurua Arina**, Oiartzungo Ander eta Hondarribiko Maideren alaba.
 9an: **UNAI Iza Goikoetxea**, Irungo Francisco Javier eta Hondarribiko Maria Joseraren semea.
 12an: **OIHANE Retolaza Muñoz**, Idiazabalgo Enekoitz eta Irungo Joneren alaba.
 12an: **ARIANA Joya Navajas**, Tunja-ko (Kolonbia) Cesar Augusto eta Donostiako Nagorearen alaba.
 13an: **EKHI Sarasola Iriarte**, Hondarribiko Aitor eta Irungo Junkalaren semea.
 13an: **ITXASO Diez Barranco**, Donostiako Gorka eta Donostiako Iboneren alaba.
 14an: **ELENA Doussinague Oiarzabal**, Tolosako Eduardo Manuel eta Bilboko Elena Adelaren alaba.
 15ean: **EURI Garbizu Aurtenetxe**, Donostiako Borja eta Bilboko Marinaren alaba.
 15ean: **ION Anzisar Etxeberria**, Hondarribiko Juan Maria eta Irungo Maria Elenaren semea.
 19an: **JORDI Jimenez Blanco**, Bartzelonako Jose eta Donostiako Mariaren semea.
 19an: **DARE Daboz Olasagasti**, Irungo Ignacio eta Hondarribiko Monikaren alaba.
 22an: **ANE Irigoien San Pedro**, Donostiako Gorka eta Donostiako Naiaren alaba.
 22an: **MARIA Lekuona Betelu**, Donostiako Unai eta Donostiako Idurren alaba.
 23an: **XANTAL Rekalde Arruabarrena**, Erreterriako Angel Maria eta Donostiako Oihanaren alaba.
 31n: **URKO Alvarez Goikoetxea**, Hondarribiko Fernando eta Hondarribiko Amairen semea.



EZKONTZAK MAIATZAN

3an: **JOSE RAMON Zubillaga Corredera**, Hondarribikoa, eta **MARIA Ferrer Valles**, Caracas-koa (Venezuela).
 10ean: **JUAN Calduch Gabriel-Galan**, Madril-koa, eta **ANA ISABEL Muriel Moreno**, Irungoa.
 12an: **EVA Lobato Gamero**, Sabadell-koa, eta **EIDER Arizmendi Lurburu**, Donostiakoa.
 17an: **HARITZ Altuna Muñoz**, Hondarribikoa, eta **GARDOTZA del Rio Emazabel**, Pasaiakoa.
 17an: **MAGATTE Mbaye**, Dakar-Senegalekoa, eta **MARIA PILAR Moreiro Fernandez**, Campillo de Azaba-koa (Salamanca).
 17an: **MANUEL Agirre Eizagirre**, Hondarribikoa, eta **NEREIDA Ramirez Rodriguez**, Madril-koa.
 17an: **IBAN Urkizu Murueta-Goiena**, Irungoa, eta **MONICA Goikoetxea Larruskain**, Hondarribikoa.
 24an: **JOSEBA Berridi Etxeberria**, Irungoa, eta **OLATZ Rodrigo Etxaide**, Irungoa.



HERIOTZAK MAIATZAN

2an: **CARMEN Galparsoro Aristimuño**, Segurakoa, 67 urte, Jaizkibel etorbidean.
 4an: **CARMELO Gil Ibañez**, Calatayud-koa (Zaragoza), 87 urte, Donostia kalean.
 9an: **JUAN MARIA Martin Zubillaga**, Hondarribikoa, 75 urte, Gijonen.
 15ean: **MARIA PILAR Bolaño Olea**, Irungoa, 65 urte, Amute kalean.
 15ean: **MARISOL Agirre Oronoz**, Hondarribikoa, 81 urte, Mendelun.
 16an: **ANTONIA Loiarte Apezetxea**, Aranokoa, 75 urte, Gibeleta auzunean.
 17an: **FLORENCIO Perez Arrieta**, Hondarribikoa, 77 urte, Zigarronea baserrian.
 18an: **MARIA FRANCISCA Iturriza Landa**, Ondarroakoa, 80 urte, Guadalupeko Ama kalean.
 19an: **MARIA JESUS Kortazar Uribealzo**, Eskoriatzakoa, 64 urte, Donostia kalean.
 20an: **NORBERTO Jauregi Bengoetxea**, Hondarribikoa, 77 urte, San Gabriel Egoitzan.
 20an: **ANTONIO Elduaien Aseginolaza**, Hondarribikoa, 96 urte, Sorluzen.
 21ean: **CLAUDIO Olano Gurrutxaga**, Tolosakoa, 99 urte, Kosta kalean.
 26an: **MANUELA Polanco Gonzalez**, Reinosa-Cantabriakoa, 94 urte, Plaza San Markos 4-1º B kalean.
 29an: **ALFONSO Bardaji Cano**, Trujillo-koa (Caceres), 79 urte, Ramon Iribarren pasealekuan.
 31n: **ANTONIO Emazabel Olaso**, Hondarribikoa, 84 urte, San Gabriel Egoitzan.





FERMIN OLASKOAGAK
jasotako datuak:

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK MAIATZAN

Altak:Jaiotzak: 21, eta kanpotik etorriak: 54
Bajak:Hildakoak: 14, eta herritik joanak: 67
Biztanle kopuru orokorra:16,493 bizilagun.

MAIATZAKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 408 euskaraz,
1470 gaztelaniaz eta 24 bestelakoak. Guztira:
1902 liburu.

Ekarri diren liburu berriak: 208 euskaraz,
102 gaztelaniaz eta 3 bestelakoak. Guztira:
313 liburu.

Bazkide berriak: 10 gizon eta 15 emakume.
Horietatik 14 heldu eta 11 haur eta erakunde
1. Guztira 26.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak:

Euskeraz: HAHN, Cyril.- Bubuk ez du
lorik egin nahi.- Ibaizabal.

Gaztelaniaz: COUSINS, Lucy. - Qué
tiempo hace, Maisy.- Serres.

Helduak:

Euskeraz: BOYNE, John.- Pijama marra-
dunaz jantzitako mutikoa.- Alberdania.

Gaztelaniaz: FOLLET, Ken.- Un mundo
sin fin.- Plaza y Janés.

MAIATZAKO EGURALDIAREN DATUAK

Temperaturarik gorena:30,6° C, hilaren
3an.Temperaturarik beherena:7,6° C, hilaren 1ean
Batez besteko tenperatura:17,2° C.
Batez besteko hezetasuna:% 70
Euri-litroen kopurua:140,3 mm
Egunik euritsuena:hilaren 31an 51,0 mm
Euri indartsuenen uea:hilaren 31ko 5,46tan, 43,2 mm/orduko
Egun euritsuak:25 egun
Elur egunak:0 egun
Kazkabar egunak0 egun
Ekaitz egunak8 egun
Behe-lainoko egunak:egun 1
Ihintz egunak:7 egun
Zeru oskarbia:1 egun
Zeru lainotua:18 egun
Zeru estalia:12 egun
Eguzki kopurua:180,2 ordu
Batez besteko presioa:1011,2 milibar
Presiorik gorena:1023,0 milibar, hilaren 5ean
Presiorik beherena:1002,7 milibar, hilaren 23an
Haizea >55 Km/ord.0 egun
Haizerik indartsuena:hilaren 23an 52 Km/orduko

(Hondarribiko aireportutik jasoak).

joski

Lentzeria arropa
Haurrentzat arropa

Matxin de Artzu, 18
Tel.: 943 64 4846 - 20280 HONDARRIBIA





**URTE
25
ANOS**

Zure ospakizunak
ahaztezinak bihur
daitezen

1.982 - 2.007

25 URTE HONDARRIBITARREN ZERBITZURA

JAIZUBIA- Tel. 943 64 31 94 - 20280 HONDARRIBIA - www.bekoerrota.com



Euskadiko Kirol Portuak

Bermeo
Donostia-San Sebastián
Getaria
Hondarribia
Orio

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
SERVICIO DE PUERTOS Y MAR
15.000736 15.000736 15.000736
15.000736 15.000736 15.000736





Sensor Aire



Separador viento



Mando a distancia



**Panel deslizable
Screen**



Enrollable Screen



Panel deslizante Tela



Veranda



DOBLE A
www.doble-a.com

Tel: 943 667 003

Amute, 8 bajo C (Frente Aeropuerto) - HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



SUMINISTROS ELECTRICOS





OSAGAI ELEKTRIKOAK



C\ Salvador Etxeandia, 6 Bajo Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48 20304 Irún